



eskohitza
danona da



Gizarte Zerbitzuetako lan taldeak egindako ekarpenen laburpena

- Eskoriatza herri inklusiboa eta anitza izatea.
- Boluntariadoa sustatzea nagusiei eta gazteei zuzendua. Boluntarioen zerrenda bat jaso (web gunearen bitartez,...). Trukea bultzatzea.
- Telefono sare bat sortu bakarrik bizi den jendeari zuzenduta.
- Zaintzaileak zaintzea. Zaintzaileen talde bat sortzea euren beharrak ezagutu eta irtenbideak aurkitzeko. Adibidez mantentze gimnasia eskaintzea.
- Nagusientzat eta ezgaituentzat etxebizitza tutelatuak egitea.
- Gizarte zerbitzuekin zerikusia duten elkarte eta eragileen arteko elkarlana bultzatzea.
- Behar bereziak dituzten pertsonen beharrak kontuan izatea . Adibidez jolasteko parke egokitu bat izatea ume ezgaituentzako; igerilekuko graduak igotzea ezgaituentzako ikastaroak daudenean,
- Sentsibilizazioa lantzea herri mailan: berdintasunaren alde lan egiteko, tratu txarren kontra jarduteko, drogamenpekotasunei aurre egiteko, langabezia gutxitzeko, ezgaituak eta adingabeak babesteko, zahartzaro aktiboa bultzatzeko,
- Etxebizitza eskubidea bermatzea.
- Adin txikikoen artean beste kulturen arteko integrazioa lantzea. Eragile guztiak inplikaturako lana: ikastetxeak, udala, gazte taldeak,....
- Langabeziak eta denbora libreak eragin zuzena du droga gehiegizko kontsumoan. Hau ekiditeko sentsibilizazio kanpainak egitea.
- Prebentzio programak ikastetxeetan mantentzea ondorengo gai hauek landuz: komunikazioa, informazioa, espresioa, entzuketa aktiboa, osasun heziketa (sexualitatea, drogamenpekotasuna,..).
- Unibertsitateak herriarekin bat egin eta parte aktiboa izan bertako talde eta elkarte ezberdinekin kolaboratuz.